


Ibai bat iturburu batean (edo askotan) hasten da, gehienetan banalerroan kokatua, erreka guztiak jasotzen ditu bere arroan, ibilgu izeneko bidea jarraitzen du eta bokale edo ibai-ahoa amaitzen da (itsasoan, aintzira baten edo beste ibai baten). Ibai bateko ura, normalean, ubidera mugatzen da, ibai-ertzek mugatua. Ibai nagusiak jasotzen dituen beste ibaiei ibaiadar deritze. Ibai handienetan uholde-lautada izaten da, ubidea gaintzen duten uholde-urek osatua. Uholde-lautadak oso zabalak izan daitezke ubidearekin alderatuta. Ubidearen eta uholde-lautadaren arteko bereizketa hori lausoa izan daiteke, batez ere hiriguneetan, non etxebizitzak eta industriak asko garatu baitezakete ibai-ertz eta lautadan bertan.

Lurralde lauetan, ibaiak meandroak era ditzake, hau da, ubidearen kurba erregularrak. Lurraldea malkartsu bada ordea, ur-jauziak eta ibai-lasterrak sor ditzake, eta menditsua bada, arroilak. Ibaiak sedimentu edo jalkin kopuru handiak garraiatzen dituzte, bankuak edo uharteak eratuz, eta bokalean deltak. Ibai-ahoa zabala eta sakona bada, estuarioa sor dezake.



Mapa 1 - ETRS89/UTM zona 30N - 1:800.000

Correlación entre el porcentaje de mujeres entre personas que dirigen explotaciones agrarias y el número de explotaciones que dedican tierras según rubro por comarca, C. A. País Vasco. Datos extraídos del censo agrario 2020, Eustat-Agencia Vasca de Estadística.